

Lan Hitz

Eguneroko lanean ere euskaraz

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

1

ZER da LANHITZ?

LANHITZ Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatutako dirulaguntza programa da. Programa honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan sektore pribatuan dauden lantokietan euskararen erabilera eta presentzia areagotzea da.

NORK eska dezake LANHITZ dirulaguntza?

- EAEn lantokia duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiek.
- Elkargo profesionalek: euren funtzio pribatuak egikaritzeko.

OHARRA: deialdi honetatik bazter geratuko dira euskal sektore publikoa osatzen duten entitateak, euskara-zerbitzuak eskaintzen dituzten entitateak, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak eta haien fundazioak.

2

3

NOIZ argitaratzen da **LANHITZ** dirulaguntza?

URTERO argitaratzen da **LANHITZ**
dirulaguntza.

4

ZENBAT DENBORA dago eskaera egiteko?

Deialdia arautzen duen agindua
EHAA n argitaratu eta hurrengo
egunetik aurrera **HILABETEKO**
EPEA dago eskabidea egiteko.

5

NOLA ESKATU

behar da

LANHITZ

dirulaguntza?

Pertsona edo entitate interesdunek bide elektronikoak erabili behar dituzte prozedurako izapide guztiak egiteko, kontsultatzeko eta eskatzeko.

Harremanetarako:

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako

Zuzendaritza

945018109 / 945018115 / 945019487

lanhitz@euskadi.eus



LABURPENA

ZER LAGUNTZEN DA DIRUZ?	BALDINTZA	ZENBAT URTEZ JASO DAITEKE?	ESKATZEN DEN AUTOFINANTZAZIOA	ZENBAT DIRU JASO DEZAKET?	DIRUZ LAGUNTZEN DIREN KONTZEPTUAK
Ekintza solteak (1. multzoa)	Euskara Planik ez	5 urte	Gutxienez % 20	6.000 €	· Itzulpenak · Aldibereko itzulpen zerbitzua
Diagnostikoa eta euskara plana diseinatzea (+ ekintza solteak) (2. multzoa)	Euskara Planik ez	Behin		9.000 € (1-10 langile) 11.000 € (11-50 langile) 13.000 € (51-100 langile) 14.000 € (100 langile baino gehiago)	· Langileen euskalduntze zein alfabetatze ikastaroak · Langileentzako prestakuntza-ikastaroak euskaraz · Aldahitz edo gisako metodologian oinarritutako prozesuak · Euskararen sustapen orokorrarekin lotutako ekimenak edota euskararen motibazio ekimenak
Urteko kudeaketa plana garatzea (3. multzoa)	Euskara Plana	Lanhitzen 18 urtez dirulaguntza jaso arte		35.000 € (Lanhitz laguntza 12 urtez jaso arte)	· Softwaregintza · Ekintzen edo plangintzaren jarraipena, ebaluazioa, implementazioa eta egokitzapena
Proiektu estrategikoak garatzea (4. multzoa)	-	Mugarik ez*		25.000 € (Lanhitz laguntza 12 urtez jaso ostean)	· * Erakundearen diagnostikoa eta euskara planaren diseinua (2. multzoa)

* Multzo honetan hiru urtez dirulaguntza jaso dutenek berriro ere onuradun izan ahal izateko Bikain ebaluazioa (osoa edo partziala) pasatu beharko dute laugarren aldiz dirulaguntza jaso ahal izateko. Aurrez noizbait Bikain ebaluazioa pasatu dutenek gehienez ere beste bi urtez ere jaso ahalko dute dirulaguntza baldin eta bi urte horietan plantillako norbait Bikainen ebaluatzaile aritzen bada. Kasu horretan, urte bakoitzean plantillako norbaitek Bikaineko prestakuntza jaso eta ebaluatzaile aritu beharko du urteko ebaluazioaldietako batean.

